
Sanjuanak
2024
Andoain
EGILEA / AUTORA: NEREA URALDE ARRONDO
ANDOAINGO UDALA

# Gautxoria BUS zerbitzua SAN JUAN jaietan

Bus bakarra bi ibilbide

| ostirala viernes 21 | larunbata sábado 22 | igandea domingo 23 | astelehena lunes 24 |
|---|---|---|---|
| 00:00-03:30 | 00:00-03:30 | 00:00-02:30 | 00:00-01:30 |
| 0,60€ >4 urte | 0,60€ >4 urte | 0,60€ >4 urte | 0,60€ >4 urte |
| 0,20€ jubilatuak | 0,20€ jubilatuak | 0,20€ jubilatuak | 0,20€ jubilatuak |









| ABIAPUNTUA INICIO | IRTEERA SALIDA | GELDIALDIAK PARADAS | OHARRA NOTA |
|---|---|---|---|
| Agustin Leitza kalea, Udaletxearen atzealdea. | Busaren eduKieraren batez bestekoa osatzen denean. | Ohiko geltokietan eta eskatutako lekuetan. | Ibilbidean zehar ez dira bidaiariak jasoko. |
| Calle Agustin de Leiza, trasera del Ayuntamiento. | Cuando se cubra el promedio del aforo del bus. | Puntos habituales y los que se soliciten. | Durante el trayecto no se recogerán viajeros. |


ANDOAINGO UDALA



# ZAUDEN LEKUAN ZAUDELA GOGORATU

# BAIETZIK GABE EZETZ DA



# Alkatearen agurra

Hemen dira 2024ko Sanjuan jaiak!

Udako solstizioarekin batera, gure herriko jai nagusien ospakizunean murgilduko gara andoaindarrok. Urte osoan zehar pilatu ditugun bizipenak gogoratzeko aukera izango dugu, txarrak sutara botaz, eta onak gurekin eramanez. Urte berriari eskatzen dizkiogunak ere zerrendatuko ditugu, beteko diren esperantzaz.

Lerro hauen bidez, jaiak errespetuz eta elkartasunez bizitzeko nahia adierazi nahi dizuet. Bizitzako edozein esparrutan bezala, jaiak ere guztiontzat direlako. Gogoan izango ditugu, halaber, arrazoi batengatik ala besteagatik gurekin egon ezin duten andoaindarrak, eta laster gure artean egon daitezela desioko dugu.

Mila esker jai hauek posible egiten dituzuen guztiei: udal langile, herriko talde, elkarte, boluntario… eta nola ez, mila esker zuri, herrikide. Zure partaidetzarik gabe, ezinezkoa litzateke Andoain eta bere jaiak diren modukoak izatea.

Ondo pasa festak eta bizi Sanjuanak!

# *Saludo del alcalde*

*¡Ya están aquí las fiestas de Sanjuán de 2024!*

*Coincidiendo con el solsticio de verano, los y las andoaindarras nos adentraremos en la celebración de las fiestas patronales de nuestra localidad. Tendremos la oportunidad de recordar las vivencias que hemos ido acumulando a lo largo de todo el año, echando al fuego aquellas que no han sido buenas, y llevándonos con nosotros-as las que sí lo han sido. También enumeraremos los deseos que pedimos al año nuevo con la esperanza de que se cumplan.*

*Desde estas líneas, quiero extenderos el deseo de disfrutar de las fiestas desde el respeto y la solidaridad. Porque como en cualquier ámbito de la vida, las fiestas también son para todas y todos. Recordaremos a las personas que por una u otra razón no pueden estar entre nosotras, y desearemos que estén pronto entre nosotros.*

*Gracias a todas las personas que hacéis posible estas fiestas: trabajadoras-es municipales, grupos y asociaciones del pueblo, voluntarias-os... y cómo no, gracias a ti: Sin tu participación, sería imposible que Andoain y sus fiestas fueran como son.*

*Ondo pasa festak eta Bizi Sanjuanak!*

**Andoni Alvarez Lete**

ANDOAINGO UDALA

# Sanjuanak 2024

# Egitaraua

## 21, ostirala



**17:30** **Txapa tailerra, pankarta margoketa** eta txupinazora guztiok batera! Goikoplazan, Gazte Lokalak antolatuta.

Eguraldi txarrarekin Ambrosia Olabideko Gazte Lokalean.

**18:00** Sanjuanetako **kartel lehiaketako sari banaketa** Goikoplazako frontoian.

**18:30** **Lebiton buruhandi eta erraldoien konpartsa, Olagain txistulari taldea, Udal Musika Eskolako Eskusoinu taldea** eta **Gora Kaletxiki txaranga** Goikoplazara iritsiko dira.



**19:00** **Pregoia Hurria Sahara taldearen** eskutik udaletxeko balkoitik, eta jaien hasierako **txupinazoa**.

Txupinazoaren ondoren, **Gora Kaletxiki txarangak** Luis Fracaren "Andoain" musika pieza joko du.

**21:00** **Pilota partidak** Arrate pilotalekuan:

1. Pala jaialdia.
2. Erremonte profesionala: Aritz Eskudero eta Jon Irazu.

**22:00 - 23:30** Kontzertua Goikoplazan: **Mocedades**.

**23:00 - 03:30** Kontzertuak Nafarroa plazan: **Feeling Good**, **Natural Project** eta **Niña Coyote eta Chico Tornado**.






# 22, larunbata

**10:00 Plater tiroketa** San Juan Saria, Ontza elkarteak antolatua, Oiartzungo Arkale zelaian.

**10:00 Pilota partidak** Arrate pilotalekuan. Pilota Eskolako haurren txapelketako finalak.

**10:30 - 13:00** 16 urtez azpikoen **xake txapelketa** Goikoplazan. Izen-ematea 10:15ean.

Eguraldi txarrarekin San Martin elizako arkupeetan.

**12:00 Kantu kalejira.** Maizorri txalaparta eskolako txalapartariek lagundurik ibiliko dira kalez kale, Goikoplazan hasita.

**12:00 Dantza erakustaldia:** Klaap dantza eskolako ikasleak, Goikoplazan.

Eguraldi txarrrarekin La Salle-Berrozpe ikastetxeko patioan.

**12:30 Dantza erakustaldia:** Zumbatron. Zumbalokurak antolatuta. Goikoplazan.

Eguraldi txarrarekin La Salle-Berrozpe ikastetxeko patioan.

**14:30** Bazkaria Goikoplazan: **txuleta jana.** Txartelaren prezioa, ekainaren 16ra arte: helduek 25€ eta 12 urte artekoak 10€. Egunean bertan, 35€.

Menua: txorizoa, entsalada mistoa, txuleta, gazta-irasagarra eta intxaurrak. Sagardoa txotxetik, ardoa eta ura.

Txartelak salgai Elizondo tabernan, Urrats inprimategian eta Ernaitza liburudendan.

Eguraldi txarrarekin La Salle-Berrozpe ikastetxeko patioan.





**16:00** **Sanjuanetako Gaztañaga zesta punta txapelketa Arrate pilotalekuan**:

- Benjaminen kinielak.
- Alebinen kinielak.
- Infantilen kinielak.
- 22 urtez azpiko mutilen finala.
- Emakumezkoen San Juan txapelketako finala.

**16:30** Andoaingo **trikitilari eta pandero-joleen kalejira**, Goikoplazan hasita.

**17:00 - 19:00** **Oria txaranga**.
Kalez kale, Goikoplazan hasita.

**18:00** **XXV. bizikleta festa** Goikoplazan. Bakoitzak bere bizikleta eta kaskoa ekarri beharko ditu. Opariak parte hartzen duten guztientzat.

2-12 urte arteko haurrek parte hartzeko aukera izango dute.

Izen ematea proba hasi baino 30 minutu lehenago.

Eguraldi txarrarekin Ondarreta Herri Eskolako patioan.

**19:00** **Andoaindarra elkarteko danborradaren** irteera Andoaindarra elkartetik.

Ibilbidea: Goikoplaza, Agustin Leitza kalea, Pio Baroja kalea, Nafarroa plaza, Arteta kalea, Agustin Leitza kalea, Goikoplaza.

**22:00** **Joseba & Bakartxo dantza eskolaren** erakustaldia, Goikoplazan. Ikasle eta profesionalak: Joseba & Bakartxo, Marta Oteiza, Imad Rbihi, Eder eta Elena, Ibane eta Nerea, Paolo Suarez eta Mike Evens.

+80

**22:45** **Zezensuzkoa** Goikoplazan.

**23:15 - 01:00** **UT!** taldearen kontzertua, Goikoplazan.

+80

**23:00 - 02:30** **Black Smoke** eta **Gatibu** taldeen kontzertuak, Nafarroa plazan.

+80





# 23, Igandea

**09:00 - 20:00** **Warhammer torneoa**
**40 k** Bastero Kulturgunean,
Enderen Jokoa elkarteak antolatuta.

**10:30** **Sanjuanetako XVI. kross mistoa**.
5 kilometroko ibilbidea. Irteera eta helmuga Pio Baroja kalean.

**11:00** **Gipuzkoako pala txapelketako finala**
Arrate pilotalekuan.

**11:15** Udal Musika Eskolako **Mugaz** taldeko ikasleen kontzertua Goikoplazan.

Eguraldi txarrarekin La Salle-Berrozpe ikastexeko patioan.

**12:30** **Olagain txistulari banda**ren kontzertua hainbat kultur eragileren laguntzarekin, Goikoplazan.

**15:15** **XXXIV. junior mailako Gipuzkoako Txirrindulari Itzulia** - 3. etapa. Irteera Goikoplazatik.

**17:00** **Warhammer torneoa**
**40 k erakustaldia** Plaza Morean.

**18:00** **Udal Musika Eskolako bandaren kale-festa.** Plaza Morean hasi eta Goikoplazan amaituko da.

**18:00** **XXXIV. junior mailako Gipuzkoako Txirrindulari Itzulia** - 3. etapa.
Helmuga La Salle etorbidean.

**19:00** **Alberto Agirre abesbatzaren** eta **Udal Musika Eskolako abesbatzen** kontzertua San Martin parrokian.

**20:00** **On Pedro Aizpuruaren Salbe Gorena**
San Martin elizan, Alberto Agirre abesbatzak eta Udal Musika Eskolako abesbatzek kantatua.

Andoaingo herriak, Agustin Leitza seme kuttunari esker onez.



**20:15** Alkatearen eta udalbatzaren **soka-dantza** Goikoplazan.

**21:30** **Olagain txistulari banda**ren kalejira San Juan zortzikoa joz.

Ibilbidea: Etxeberrieta kalea, Zumea kalea, Kale Nagusia, Goikoplaza.

**22:30** **Suziri, txalaparta eta kanpai-errepikarekin, SAN JUAN SUA.**

+80

Herritarren suaren inguruko dantza eta ohiko emanaldia: Alberto Agirre eta Udal Musika Eskolako abesbatzak, Udal Musika Eskolako banda eta txistulari banda.

Ondoren, Euskal dantzen emanaldia Urki dantza taldearen eskutik.

**22:45** Agustin Leitza elkartearen **danborrada**.

Ibilbidea: Agustin Leitza elkartea, Goikoplaza, Kaletxiki, Arrate plaza, Pio Baroja kalea, Joxe Mari Iturzaeta kalea, Arteta kalea eta Agustin Leitza kalea.

**23:30 - 01:00** **Kuttune** taldearen emanaldia, Goikoplazan

+80

**23:00 - 02:00** **Dukkha** eta **Sua** taldeen Kontzertuak, Nafarroa plazan.

+80





# 24, astelehena

**08:30** **Diana** dultzaineroekin.

**10:30 - 14:30** **Artisautza eta janari azoka** Goikoplazan, Gabiltza eta Napar Bideak elkarteekin.

Eguraldi txarrarekin Ondarreta Herri Eskolako patioan.

**11:00** **Meza nagusia** San Martin parrokian, Alberto Agirre abesbatzak kantatua.

**11:30** **Munduko zaporeak:** Atzerritar jatorriko andoaindarrek beren lurraldeeko pintxoak eskainiko dituzte, Goikoplazan.

**12:00** **AXERI-DANTZA** dantza herrikoia Goikoplazan. +80

**12:00 - 14:00** **Tapizak egiteko tailerra,** artisautza azokan.

Egindako piezak azokara hurbiltzen direnen artean oparituko dira.

**13:15** **Pilota partidak:** kontzejupeko txapelketako finalak: 3. eta 4. postuak eta finala.

**17:00 - 19:00** **Tapizak egiteko tailerra,** artisautza azokan.

Egindako piezak azokara hurbiltzen direnen artean oparituko dira.

**17:00 - 20:00** **Artisautza eta janari azoka** Goikoplazan, Gabiltza eta Napar Bideak elkarteekin.

Eguraldi txarrarekin Ondarreta Herri Eskolako patioan.

**17:45** **Herri kirolak** Goikoplazan. +80

**Aizkoran, hainbat modalitate:** zutik, azkartasun froga, 10 kana-erdi jarraiko lana, trontza.

**Bikotekako lehian:**

1. Iker Vicente (Euskal Herriko txapelduna) eta Iñaki Azurmendi.
2. Ugaitz Mugerza (I. Euskal Duatloi txapelduna) eta Julen Alberdi “Txikia” (Urrezko Aizkora txapelduna).

**Harri jasotzen:**

- Mikel Lopetegi “Urra” (Euskal Herriko txapelduna).
- Lierni Osa eta Ainize Zumeta.
- Maddi Gesalaga (15 urterekin harri jasotzen errekorra: 100 kiloko kubikoa eta 113 kiloko zilindrikoa).

Eguraldi txarrarekin Arrate pilotalekuan.



**18:15** **Dj Bull** kalez kale, Plaza Moretik Goikoplazara.

**19:30** **Bertso jaialdia** Goikoplazan: Oihane Perea, Aitor Mendiluze, Alaia Martin, Andoni Egaña, Maddi Ane Txoperena eta Agin Laburu.

Gai-jartzailea: Unai Ormaetxea.

Eguraldi txarrarekin La Salle-Berrozpe ikastetxeko estalpean.

**22:00** **Dj Bull**en emanaldiaren amaiera Goikoplazan.

**22:30** **Dronen ikuskizuna** Goikoplazan.

**22:45** **Zezensuzkoa** Goikoplazan.

**23:00 - 01:00** **Olgetan** erromeria taldearekin dantzaldia, Goikoplazan.

**23:00 - 01:00** **Dupla** taldearen kontzertua Nafarroa Plazan.



# 25, asteartea

**10:00 - 14:00** **Haur parkea** Goikoplazan: jokoak, puzgarriak, ludoteka...

Eguraldi txarrarekin Ondarreta Herri Eskolako patioan.

**13:30** **Agintarien harrera laurogei urteko andoaindarrei**, udaletxe aurrean. Ondoren, bazkaria Bastero Kulturgunean.

**17:00** **Ipurbeltz** familientzako ikuskizuna, Zumea plazan.

**18:00** **Haur danborrada**: Aita Larramendi, Ondarreta eta La Salle-Berrozpe ikastetxeetako ikasleen eskutik, alkate txikia eta herriko ordezkariak buru direla.

Ibilbidea: Zumea, Kaleberria, Kale Nagusia eta Goikoplaza.





**19:30 - 20:30** Beñat Fernández, “Pelontxu”, andoaindarraren **moto erakustaldia** Nafarroa Plazan.

Eguraldi txarrarekin La Salle-Berrozpe ikastetxeko patioan.

**21:00 - 22:30** **Puro Relajo** taldearen kontzertua, Goikoplazan.

**22:30** **CavalTHEOS**, Scura taldearen **kalejira piroteknikoa**. Juanita Alkain plazatik Goikoplazara.

Ikuskizun honekin amaituko dira aurtengo Sanjuanak.

# Erakusketa

**Ekainaren 21etik 25era**

**Sanjuanetako kartel lehiaketan** aurkeztutako kartelak. Goikoplazako frontoian.

# Oharrak

**1) Andoaingo AUZOTAR GUZTIEI,** eta bereziki Kaletxikin eta 25. Poligonoan bizi direnei jakinarazten diegu Sanjuanetan ezingo dela Goikoplaza kotxez zeharkatu (ekainaren 21etik 25era).

**Erabiltzeko bideak**: Igotzeko: Bertxin edo Erroitz kaleetatik (La Salle Ikastetxearen atzealdetik). Jaisteko: Aierbe aldeko bidetik Joakin Larreta edo Erroitz kaleetara.

**2) *Correfocs* ikuskizunerako segurtasun neurriak:**

Piroteknia erabiltzen duen ikuskizun ibiltaria da (txispa txuria - titani eta urre koloreko txispa - filier), beraz, ezustekorik egon ez dadin, izan neurri hauek:

**Saltoki eta ostalaritza**

- Leiho, ate eta erakusleihoetako kristalak paperarekin edo kartoiarekin.
- Toldoak bilduta utzi.

**Publiko orokorra**

- Arropa bakeroa eta buruko estalkia eramatea gomendatzen da.

**Scura** enpresa eta antolatzaileak ez dira gerta daitezkeen kalteren erantzule izango.

**3) Gune Morea - Informazioa**. Pio Baroja kalea 1B (Ambrosia Olabide). Ekainaren 21etik 25era. Telefonoa: 676 567 724.

**4) Irisgarritasuna**.
80 urtetik gorakoentzako eta mugitzeko zailtasunak dituztenentzako espazioak.

**6) Azken orduko albisteak jarraitzeko**
Instagram: udala_andoain
Twitter edo X: @Andoain-Udala
Facebook: Andoaingo Udala

# "Hurria Sahara" saharar herriarekiko lagunen elkartea




2001. Haur saharauien lehen taldea Andoainen.
*2001. Primer grupo de menores saharauis en Andoain.*

# *Asociacion de amigos con el pueblo saharaui "Hurria-Sahara"*



Egilea/Autor: Jon Iraola Treku.

Duela hogeita bat urte sortu zen Hurria Sahara elkartea, 'Oporrak bakean' kanpainaren baitan Saharako haurrak uda pasatzera gure herrira ekarri zituzten lehenengo 6 familien inguruan.

2001 urteaz geroztik, dozenaka familia eta haur sahararrek Andoain eta Sahararen arteko harremanak estutu dituzte.

Elkarteak saharar herriari sostengua ematea du helburu:  Nazio Batuen bake-plana bete dadila, errefuxiatuak itzul daitezela eta 1991tik betetzeke dagoen autodeterminazio-erreferenduma egin dadila.

Andoaindarren, Udalaren, eskolen, elkarteen eta saltokien laguntzari esker, elikagaiak biltzeko kanpaina egiten da urtero, eta elikagaiez gain, errefuxiatuen kanpamenduetara ere osasun-, eskola- eta kirol-materiala bidaltzeko karabana osatzen da.

*Hace veintiún años se constituyó la Asociación Hurria Sahara en torno al primer grupo de 6 familias que participaron en la iniciativa 'Oporrak bakean'.*

*Desde 2001 han sido decenas de familias y menores saharauis las que verano tras verano han ido estrechando lazos entre Andoain y el Sahara.*

*La asociación centra su labor en el apoyo al pueblo saharaui, exigiendo el cumplimiento del plan de paz de Naciones Unidas que permita el regreso de las y los refugiados, y demandando que se celebre el referéndum de autodeterminación que  se acordó en 1991.*

*Gracias a la ayuda de andoaindarras, Ayuntamiento, centros educativos, asociaciones y comercios, la asociación es parte de la caravana anual  de recogida de alimentos y envío de material sanitario, escolar y deportivo que se destina a los campamentos de refugiados y refugiadas saharauis.*



Bertso Saioa, 2019 urtea (Aiurriren argazkia).

Saharako gatazkari buruzko sentsibilizazio-jarduerak ere antolatzen dira: hitzaldiak eta proiekzioak, Udalean mozioak onartzea eta Saharako bandera jartzea, bertso-saioa...

Elkartasuna joan-etorriko bidea dela argi daukagu, eta ikuspegi komunitario horretatik, elkarteak modu aktiboan parte hartzen du udalerriko hainbat proiektutan, hala nola 'Ibili Andoain' egitasmoan, kultura-aniztasunaren programan, martxoaren 8ko ekitaldietan... Aurten, gainera, gerratik ihes egiten duten palestinarrei laguntza humanitarioa emateko diru kopuru bat bideratzea eskatu du Udalak.

Saharar herriak eguneroko bizitza eta autogobernua antolatzen darrai kanpamenduetan, eta erresistentziari eusten dio Marokok okupatutako lurraldeetan; hori horrela, bidezko irtenbide bat behar du lehenbailehen, aske bizi ahal izateko.

*Cada año organiza diversas actividades de sensibilización sobre el conflicto saharaui: conferencias y proyecciones, aprobación de mociones y colocación de la bandera saharaui en el edificio consistorial, bertso saioa...*

*La asociación cree que la solidaridad es un camino de ida y vuelta, y desde esta perspectiva comunitaria la asociación Hurria Sahara participa de forma activa en diferentes proyectos del municipio como 'Ibili Andoain', el programa de diversidad cultural, los actos del ocho de marzo... y este año también ha pedido que el Ayuntamiento destine una cantidad económica para ayuda humanitaria de emergencia destinada a la población palestina que huye de la guerra.*

*El pueblo saharaui sigue organizando su autogobierno en los campamentos y haciendo frente a las dificultades del desierto, y sigue resistiendo en los territorios ocupados por Marruecos. Las y los saharauis merecen una solución justa que les permita vivir en libertad.*



San Juanak Goiko Plazan. Soka-dantza. Lerroaren buruan Azelaingo jauntxoa.
*San Juanes en Goiko Plaza. Soka-dantza. En cabeza de la fina el señorito de Azelain.*

# SOKA-DANTZA berreskuratu zela 25 urte

Andoainen, Gipuzkoako beste hainbat herritan egiten zen modura, udaletxe aurrean eta ospakizun handietan, alkateak eta udal agintariek, soka-dantza dantzatzen zuten herriko plazan.

IKERFOLK elkarteak Gipuzkoako protokolo koreografiko hori berreskuratzeari ekin zionean, Andoaingo Udalak erabaki zuen herrian soka-dantza berreskuratu egin behar zela.

Horrela, 2000. urteko Sanjuanetan, garaiko alkate eta udalbatzak soka-dantza dantzatu zuten San Juan bezperan. Sokaren metafora baliatuz, honakoa adierazi nahi da:, batetik, udal ordezkaritza bera lotzen dela eta, bestetik, udal ordezkaritza herriko plazari lotua gelditzen dela.

Urte hauetan guztietan, soka-dantzaren presentziak garrantzi handia hartu du herriko zaindariaren jaietan. Protagonistak alkatea eta zinegotziak dira, eta soka-dantza aurrera eramatearen ardura nagusia Urki dantza taldeak izan du.

Sokaren metaforak eraman gaitzala agintari eta herritarrok festa giroan lotzera!

# 25 años de la recuperación de la SOKA-DANTZA

*En Andoain, al igual que en otras localidades guipuzcoanas, frente al Ayuntamiento y en las grandes celebraciones, el alcalde y las autoridades municipales bailaban la soka-dantza en la plaza del pueblo.*

*Cuando la asociación IKERFOLK inició la recuperación de este protocolo coreográfico en Gipuzkoa, el Ayuntamiento de Andoain decidió que debía recuperarse la soka-dantza en Andoain.*

*Así, en los Sanjuanes del año 2000, el alcalde de la época y la corporación municipal bailaron la soka-dantza la víspera de San Juan. Utilizando la metáfora de la cuerda, se quiere señalar que, por un lado, se vincula la propia representación municipal y, por otro, ésta queda vinculada a la plaza de la localidad.*

*Durante todos estos años, la presencia de la soka-dantza ha adquirido gran importancia en las fiestas patronales de la localidad. Los protagonistas son el alcalde y los concejales, y la principal responsabilidad de mantener la soka-dantza ha recaído en el grupo de danzas Urki.*

*¡Que la metáfora de la cuerda nos lleve a los gobernantes y ciudadanos a unirnos en un ambiente de fiesta!*

# Sanjuanes 2024

# Programa

## Viernes, 21



**17:30** **Taller de txapa y pintado de pancarta** en Goikoplaza. A continuación todas y todos al txupinazo! Organizado por Gazte Lokala.

Con mal tiempo en Gazte Lokala de Ambrosia Olabide.

**18:00** **Entrega de premios del concurso de carteles** de Sanjuanes en el frontón de Goikoplaza.

**18:30** La **Comparsa Lebiton de gigantes y cabezudos**, junto con los **txistularis de Olagain**, el **grupo de acordeones de la Escuela de Música municipal** y la **charanga Gora Kaletxiki** llegarán a Goikoplaza.

**19:00** **Pregón** de la mano de **Hurria Sahara** y **chupinazo** de inicio de fiestas desde el balcón del Ayuntamiento. +80

Después del chupinazo, la **charanga Gora Kaletxiki** interpretará la marcha "Andoain" de Luis Fraca.

**21:00** **Partidos de pelota** en el frontón Arrate:

1. Festival de pala.
2. Remonte profesional: Aritz Eskudero y Jon Irazu.

**22:00 - 23:30** Concierto del grupo **Mocedades** en Goikoplaza. +80

**23:00 - 3:30** Conciertos en Nafarroa plaza: **Feeling Good**, **Natural Project** y **Niña Coyote eta Chico Tornado**. +80





# Sábado, 22

**10:00** **Tiro al plato** San Juan Saria, organizado por Ontza Elkartea, en la Campa Arkale de Oiartzun.

**10:00** **Partidos de pelota** en el frontón Arrate: finales del campeonato de infantiles de la escuela de pelota.

**10:30 - 13:00** **Campeonato de ajedrez** Sub 16 en Goikoplaza. Inscripciones a las 10:15.

Con mal tiempo en los arcos de la iglesia San Martín.

**12:00** **“Kantu kalejira”** acompañados por la txalaparta itinerante Maizorri, comenzando en Goikoplaza.

**12:00** **Exhibición de danza**: alumnos/as de Klaap dantza eskola. En Goikoplaza.

Con mal tiempo en el patio del colegio La Salle-Berrozpe.

**12:30** **Exhibición de danza:** Zumbatron en Goikoplaza. Organizado por Zumbalokura.

Con mal tiempo en el patio del colegio La Salle-Berrozpe.

**14:30** **Chuletada** en Goikoplaza: precio del menú, hasta el 16 de junio, 25€ adultos y niños/as hasta los 12 años, 10€. El mismo día, 35€

Menú: Chorizo, ensalada mixta, txuleta, queso-membrillo, nueces. Sidra del txotx, vino y agua.

Puntos de venta de los tickets: bar Elizondo, imprenta Urrats y librería Ernaitza.

Con mal tiempo en el patio del colegio La Salle-Berrozpe.



**16:00** **Festival cesta punta Gaztañaga "San Juan"** en el frontón Arrate:

- Quinielas de benjamín.
- Quinielas de alevines.
- Quinielas de infantiles.
- Final de chicos sub-22.
- Final femenina campeonato San Juan de pelota.

**16:30** **Pasacalle de trikitilaris y pandereteros/as** de Andoain. Salida de Goikoplaza.

**17:00 - 19:00** **Oria Txaranga**. Desde Goikoplaza en kalejira.

**18:00** **XXV fiesta de la bicicleta** en Goikoplaza. Cada participante llevará su bicicleta y su casco. Habrá regalos para todas-os, las-os participantes.

Podrán participar los-as niños-as de 2 a 12 años.

Las inscripciones se realizarán 30 minutos antes del comienzo de las pruebas.

Con mal tiempo en el patio del colegio Ondarreta Herri Eskola.



**19:00** Salida de la **tamborrada de la sociedad Andoaindarra** desde la misma sociedad.

Recorrido: Goikoplaza, Agustin Leitza kalea, Pio Baroja, Nafarroa Plaza, Arteta Kalea, Agustin Leitza, Goikoplaza.

**22:00** Exhibición de la **escuela de baile Joseba & Bakartxo** en Goikoplaza. Alumnas-os y profesionales: Joseba & Bakartxo, Marta Oteiza, Imad Rbihi, Eder y Elena, Ibane y Nerea; Paolo Suarez y Mike Evens. +80

**22:45** **Toro de fuego** en Goikoplaza.

**23:15 - 01:00** CONCIERTO de **UT!** en Goikoplaza. +80

**23:00 - 02:30** CONCIERTOS en Nafarroa Plaza: **Black Smoke** y **Gatibu**. +80



# Domingo, 23

**09:00 - 20:00** **Torneo Warhammer 40 K** en el centro cultural Bastero Kulturgunea. Organizado por la Asociación cultural Enderen jokoa.

**10:30** **XVI cross mixto de San Juan**. Recorrido de 5 km. Salida y llegada en Pio Baroja kalea.

**11:00** **Final del campeonato de Gipuzkoa de pala** en el frontón Arrate.

**11:15** Concierto del grupo de las/os alumnas/os de la Escuela Municipal de Música en Goikoplaza: **Mugaz**.

Con mal tiempo en el patio del colegio La Salle-Berrozpe.

**12:30** Concierto de la **banda de txistularis Olagain** con la colaboración de diferentes agentes culturales. En Goikoplaza.

**15:15** **XXXIV vuelta ciclista de Gipuzkoa - categoría junior** - 3ª etapa. Salida de Goikoplaza.

**17:00** **Exhibición torneo Warhammer 40 K.** En Plaza Morea.

**18:00** **Fiesta pasacalle de la banda de la Escuela Municipal de Música**. Desde Plaza Morea hasta Goikoplaza.

**18:00** **XXXIV vuelta ciclista de Gipuzkoa - categoría junior** - 3ª etapa. Meta en avenida La Salle.

**19:00** Concierto de la **coral Alberto Agirre** y los **coros de la Escuela Municipal de Música** en la parroquia San Martin.

**20:00** **Solemne Salve de D. Pedro Aizpurua** cantada por la coral Alberto Agirre y los coros de la Escuela Municipal de Música en la parroquia San Martín.

El pueblo de Andoain en agradecimiento al hijo predilecto Agustín de Leitza.



**20:15** Tradicional **soka-dantza** del Alcalde y la Corporación en Goikoplaza.

**21:30** Kalejira de la **banda de txistularis Olagain**, interpretando el zortziko de San Juan. Recorrido: Etxeberrieta, Zumea, Nagusia, Goikoplaza.

**22:30** **Chupinazo, txalaparta y repique de campanas. HOGUERA DE SAN JUAN.** +80

Baile alrededor del fuego de los/as andoaindarras y tradicional actuación de los coros Alberto Agirre y de la Escuela Municipal de Música, Banda de la Escuela Municipal de Música y Banda de Txistularis.

A continuación, actuación de Urki dantza taldea: danzas vascas.

**22:45** Salida de la **tamborrada** de la **sociedad Agustín de Leitza**.

Recorrido: de la sociedad Agustin Leitza a Goikoplaza. A continuación Kaletxiki, Arrate plaza, Pio Baroja, Joxe Mari Iturzaeta, Arteta y Agustin Leitza.



**23:30 - 01:00** Espectáculo del grupo **Kuttune** en Goikoplaza. +80

**23:00 - 02:00** Conciertos en Nafarroa Plaza: **Dukkha** y **Sua**. +80





# Lunes, 24

**08:30 Diana** con los dulzaineros.

**10:30 - 14:30 Feria de artesanía y alimentos** con las asociaciones Gabiltza y Napar Bideak en Goikoplaza.

Con mal tiempo en el patio del colegio Ondarreta Herri Eskola.

**11:00 Misa mayor** en la parroquia San Martin, cantada por la Coral Alberto Agirre.

**11:30 Munduko zaporeak**: vecinos/as de Andoain de diferentes nacionalidades ofrecerán pinchos de su tierra, en Goikoplaza.

**12:00 AXERI-DANTZA**, baile popular en Goikoplaza.

**12:00 - 14:00 Taller demostrativo de elaboración de tapices** en la feria de artesanía.

Las piezas realizadas se obsequiarán entre los asistentes a la feria.

**13:15 Partidos de pelota:** finales del campeonato de Kontzejupe. Puestos 3er y 4º, y final.

**17:00 - 19:00 Taller demostrativo de elaboración de tapices** en la feria de artesanía.

Las piezas realizadas se obsequiarán entre los asistentes a la feria.

**17:00 - 20:00 Feria de artesanía y alimentos** con las asociaciones Gabiltza y Napar Bideak en Goikoplaza

Con mal tiempo en el patio del colegio Ondarreta Herri Eskola.

**17:45 Deporte rural** en Goikoplaza.

**Diferentes modalidades en corte de troncos:** rapidez, de pie, tronza,

**Competencia por parejas:**

1. Iker Vicente (Campeón de EH) e Iñaki Azurmendi.
2. Ugaitz Mugerza (Campeón I. Campeonato Duatlhon vasco) y Julen Alberdi “Txikia” (oro en el campeonato de tronza).

**Levantamiento de piedra:**

- Mikel Lopetegi “Urra” (Campeón EH).
- Lierni Osa y Ainize Zumeta.
- Maddi Gesalaga (con 15 años record en alzamiento piedra cúbica de 100 kg y cilíndrica de 113 kg).

Con mal tiempo en el frontón Arrate.



**18:15** **Dj Bull** por las calles de Andoain. Desde Plaza Morea hasta Goikoplaza.

**19:30** **Festival de bertsolaris** en Goikoplaza: Oihane Perea, Aitor Mendiluze, Alaia Martin, Andoni Egaña, Maddi Txoperena eta Agin Laburu.

Temas: Unai Ormaetxea.

Con mal tiempo en el patio del colegio La Salle-Berrozpe.

**22:00** Final de la actuación de **Dj Bull** en Goikoplaza.

**22:30** **Espectáculo de drones** en Goikoplaza.

**22:45** **Toro de fuego** en Goikoplaza.

**23:00 - 01:00** Romería en Goikoplazan con **Olgetan**.

**23:00 - 01:00** Concierto en Nafarroa plaza: **Dupla**.

# Martes, 25

**10:00 - 14:00** **Parque infantil** en Goikoplaza: juegos, hinchables, ludoteca...

Con mal tiempo en el patio del colegio Ondarreta Herri Eskola.

**13:30** **Recepción de las autoridades a las/os octogenarios-as** delante del Ayuntamiento. A continuación comida en Bastero Kulturgunea.

**17:00** Espectáculo familiar **Ipurbeltz** en Zumea Plaza.

**18:00** **Tamborrada infantil:** Tomarán parte las/los alumnas/os de los centros Aita Larramendi, Ondarreta y La Salle-Berrozpe presiden el desfile el Alcalde txiki y las/os representantes del pueblo.

Recorrido: Zumea, Kaleberria, Kale Nagusia y Goikoplaza.

**19:30 - 20:30** **Exhibición de motociclismo** del piloto local Beñat Fernández, “Pelontxu”, en Nafarroa Plaza.

Con mal tiempo en el patio del colegio La Salle-Berrozpe.

**21:00 - 22:30** **Puro Relajo** en Goikoplaza.

**22:30** **CavalTHEOS, kalejira pirotécnica** del grupo Scura. Desde la plaza Juanita Alkain hasta Goikoplaza.

Este espectáculo dará fin a los Sanjuanes 2024.

# Exposición

**Del 21 al 25 de junio**

Trabajos presentados al **consurso de carteles de San Juan.**

# Notas

**1) A TODOS LOS VECINOS/AS** de Andoain y en particular a los de Kaletxiki y Polígono 25 se les advierte que no podrán circular en coche por Goikoplaza durante las fiestas (21-25 de junio).

**Accesos a utilizar:** subida por Bertxin o Erroitz kalea (parte trasera del Colegio La Salle). Bajada por Casa Aierbe hacia Joakin Larreta o Erroitz Kalea.

**2) Medidas de seguridad frente al *Correfocs***

Es un espectáculo itinerante y que utiliza pirotecnia (chispa blanca - titani y chispa dorada - filier), por lo que hay que tener en cuenta lo siguiente:

**Comercios y hostelería**

- Proteger los cristales de ventanas, puertas y escaparates con papel (de embalar o duro) o cartón.
- Dejar los toldos recogidos.

**Público en general**

- Se recomienda el uso de ropa vaquera y gorra.

Ni la organización ni la empresa **Scura Splats** se hacen responsables de cualquier percance que pudiera ocurrir.

**3) Punto Morado de información** en Pio Baroja kalea 1B (Ambrosia Olabide) Del 21 al 25 de junio. Teléfono: 676 567 724.

**4) Accesibilidad**: Espacios habilitados para personas mayores de 80 años y personas con dificultad de movilidad.




**5) Para seguir las noticias de última hora**
Instagram: udala_andoain
Twitter edo X: @Andoain-Udala
Facebook: Andoaingo Udala

**ANTOLATZAILEAK: ANDOAINGO UDALA ETA JAI BATZORDEA**

**ORGANIZADORES: AYUNTAMIENTO DE ANDOAIN Y COMISIÓN DE FIESTAS**

**Jai Batzordea osatzen dute / Componen la Comisión de fiestas:**

- Agustin Leitza Elkartea
- Aita Larramendi Ikastola
- Akzesible Taldea
- Alberto Agirre Abesbatza
- AMPA Ondarreta Herri Eskola
- Andoaindarra Elkartea
- Andoaingo Punttuka Bertso Eskola
- Andoaingo Trikitilariak eta Panderojoleak
- Auzoetako Jai Batzordeak
- Axeri Dantza Taldea
- Enderen Jokoa Elkartea
- Gazte Lokala
- Gazteleku Pilota Elkartea
- Irunberri Elkartea
- Klaap Dantza Eskola
- La Salle Berrozpe Ikastetxea
- LEBITON Buruhandi eta Erraldoien Konpartsa
- Maizorri Txalaparta Elkartea
- Olagain Txistulari Elkartea
- Ongietorri Andoainera
- Ontza Elkartea
- Txirrindula Eskola
- Udal Musika Eskola
- Urki Dantza Taldea
- Xake Elkartea Agustin Leitza
- Zumeatarra Elkartea
- Zumbalokura

# SANJUANETAKO Kontzertuak

## 21



**MOCEDADES**
GOIKOPLAZA 22:00



**FEELING GOOD**
NAFARROA PLAZA
23:00



**NATURAL PROJECT**
NAFARROA PLAZA 00:30



**NIÑA COYOTE ETA CHICO TORNADO**
NAFARROA PLAZA
02:00

## 22



**UT!**
GOIKOPLAZA 23:15



**BLACK SMOKE**
NAFARROA PLAZA 23:00



**GATIBU**
NAFARROA PLAZA 00:30

## 23



**KUTTUNE**
GOIKOPLAZA 23:30



**DUKKHA**
NAFARROA PLAZA 23:00



**SUA**
NAFARROA PLAZA 00:30

## 24



**OLGETAN**
GOIKOPLAZA 23:00



**DUPLA**
NAFARROA PLAZA
23:00

## 25

**PURO RELAJO**
GOIKOPLAZA 21:00



ANDOAINGO UDALA